

Kazetari deserosoei zentsura garai zailetan

Une latzetan, laugarren boterea kontrolpean izatea komeni. Alegia, hedabideek zuritu ditzatela krisiaren aterpean agintariek egindako gehiegikeriak eta hartutako erabaki bidegabeak. Eta jarrera kritikoa dutenak aldiz, zigortu, kaleratu edo zentsuratu. Joera arriskutsu horren orokortzea salatu dute Greziako kazetariak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



Ezker-eskuin:
Kostas
Arvanitis eta
Marilena
Katsimi
aurkezleak;
eta Kostas
Vaxevanis
atxilotu zuten
unea.

KEZKATUTA DAUDE Greziako kazetariak, prentsa askatasuna “inoizko erasorik bortitzena” jasaten ari dela diote eta ERT herrialdeko telebista publikoko langileek protestak hasi dituzte, telebista kateko bi aurkezle kaleratu ostean. Joan den astean, Marilena Katsimi eta Kostas Arvanitis, ERTko goizeko saioko aurkezleak, Nikos Dendias Ordena Publikoko ministroari buruz mintzatu ziren: aipatu zuten forentsearen txostenak baieztatzen zuela manifestari antifasizistek poliziaren

tortura jasan izana, ministroak kontrakoa zioen arren. Horren harira, Nikos Dendias dimitituko ote duen ere eztabaidatu zuten. Erantzuna berehalakoa izan da: kaleratuak izan dira biak, “iradokizun onartezinak” egiteagatik. Egun bat lehenago, epaitegira eraman zuten atxilotuta *Hot Doc* astekariko Kostas Vaxevanis kazetaria, ustez iruzur fiskala egiten duten 2.000 lagunek zerrenda argitaratzeagatik. Suitzako bankuetan kontuak daukaten greziarren izenak jasotzen ditu zerrendak, eta bi urteko kartzela eskaerari egin beharko dio aurre kazetariak.

Gertaera horien aurrean, alarma gorria piztu dute hainbat elkartek, tartean Kazetarien Europako Federazioak, Mugarik Gabeko Erreportariak eta Europako Segurtasun eta Lankidetzaren Erakundeak. Atenasko egunkari argitaratzaileen elkarteko buru Dimitris Trimi-k argi du: “Gobernua ez da seguru sentitzen. Iruditzen zaio bere politikari buruz gizartea konbentzitzeko duen modu bakarra dela hedabideen manipulazioaren bidez, hedabideak mehatxa-

tuz”, jaso du *The Guardian* egunkariak. Telebista publikoan bakarrik ez, komunikabide pribatuetan ere soldata murrizketak eta kaleratzeak izan direla gogoratu du Trimik, eta egoera prekarioak erraztu egin duela kazetariak manipulatzeari, Gobernuaren eta elite ekonomikoaren interesen mesedetan.

Kanporatutako aurkezle Kostas Arvanitisen hitzetan, kaleratzea arrazoi politikoengatik izan da eta hedabideak isilarazteko saiakera da. “Honek ez du soilik gurekin zerikusia, telebista publikoko zentsurarekin dago lotua. Hemendik aurrera zerrenda bat emango al digute esan ditzakegun hitz eta komentarioak biltzen dituenak?”.

Benetako kazetaritza egiteko, agintarien atzaparretatik aske dagoen kazetaritza funtsezkoa dela azpimarratu du Maria Margaronis erreportari greziarrak: “Kazetaritza egiteak esan nahi du gainerakoak ezkutatuta nahian dabilten zerbait argitaratzea. Beste guztia harreman publikoak dira”. ■

